



Espedientea: 1HI-001/16-P03
IEKORA
Hiri-antolamenduko Plan
Orokorra

Expediente: 1HI-001/16-P03
YÉCORA
Plan General de
Ordenación Urbana

TOMÁS ORALLO QUIROGAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAREN IDAZKARIAK

TOMÁS ORALLO QUIROGA, SECRETARIO DE LA COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL PAÍS VASCO.

ZIURTATZEN DUT Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak martxoaren 16an izandako 1/2016 Osoko Bilkuran, besteak beste, honako erabaki hauek hartu zituztela, aho batez, kideen gehiengo osoa eratzen zuten bertaratutakoek:

CERTIFICO que en la Sesión 1/2016 del Pleno de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, celebrada el día 16 de marzo, se adoptó, entre otros, por unanimidad de los asistentes que conformaban la mayoría absoluta de sus miembros, los siguientes acuerdos:

“I.- Lurralde-antolamenduaren arloan:

“I. En materia de Ordenación Territorial:

I- Iekorako udalerriko Hiri-antolamenduko Plan Orokorrean azaldutako lurralde-eredua balioestea, honako xedapen hauetan ezarritakoaren arabera: Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea; Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legea; eta, Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremanen gaineko Legea aldatzen duen 5/1993 Legea. Lotesleak diren gaiei dagokienez, honela balioesten da:

I- Valorar el Modelo Territorial planteado por el expediente de “Plan General de Ordenación Urbana del Municipio” de Yécora de conformidad con lo establecido en la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo, en la Ley 4/1990 de Ordenación del Territorio del País Vasco, y en la Ley 5/1993 de Modificación de la Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de los Territorios Históricos, en los siguientes términos, cuyo carácter de informe es vinculante:

1.- INGURUNE FISIKOA.

1.- MEDIO FISICO

1a.- Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetara egokitzea.

1a.- Adecuación a las Directrices de Ordenación Territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

- Aldeko irizpena eman zaio lurzoru urbanizaezinerako proposatutako zonifikazioari, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen 8. kapituluaren ezarritako izendapen eta irizpideekin bat baitatuz.

- Se informa favorablemente la zonificación de SNU propuesta, por adecuarse a las denominaciones y criterios de las Categorías de Ordenación del capítulo 8 de las Directrices de Ordenación Territorial.

1b.- Arabako Errioxako Lurralde Plan Partzialera egokitzea.

1b.- Adecuación al Plan Territorial Parcial de Rioja Alavesa.

- Aldeko irizpena eman zaio espedienteari, Arabako Errioxako LPPera egokitzen baita.

- Se informa favorablemente el expediente en relación a su adecuación al PTP de Rioja Alavesa.

1c.- EAEko Erreken eta Ibaien Ertzen Antolamendurako LPSera egokitzea.

1c.- Adecuación al PTS de Ordenación de Márgenes de Ríos y Arroyos de la CAPV.



- Aldeko irizpena eman zaio espedienteari, Erreken eta Ibaien Ertzen Antolamendurako LPSera egokitzen baita.

- Urez bete daitezkeen tarteei dagokienez, espedientea URA-Uraren Euskal Agentziari bidali zaio, horrek bere balioespena egin dezan.

1d.- EAEko Hezeguneen Lurralde Plan Sektorialera egokitzea.

- EAEko Hezeguneen LPSari dagokionez, aldeko irizpena eman zaio espedienteari, LPS horren III. multzoan sailkatuta dagoen lekorako ureztapenerako urmaela jasotzen baita.

2.- AZPIEGITURAK ETA ZERBITZUAK

- Ez zaio eragozpenik jartzen espedienteari, azpiegituren eta zerbitzuen sareen arloetan.

3. EREMU LIBREAK ETA EKIPAMENDUAK.

- Aldeko irizpena eman zaio espedienteari, ekipamenduen eta espazio libreen arloetan.

- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritzari igorri zaio espediente, alor horren balorazioa eman dezan.

4. BIZITEGITARAKO ETA EKONOMIA-JARDUERETARAKO KOKALEKUAK.

4a.- Bizitegien eredua eta kuantifikazioa.

- Proposatzen diren 89 etxebizitza berriak Arabako Errioxako Lurralde Plan Partzialean eta LAGetan ezarritako irizpideak ezartzean lortzen diren emaitzekin bat dator.

- Aldeko irizpena eman zaio espedienteari, eraikigarritasunei dagokienez.

- Etxebizitza Sailburuordetzari bidali zaio espediente, Planak proposatzen dituen babestutako etxebizitzetzi buruzko balorazioa egiteko.

- Se informa favorablemente el expediente en relación al cumplimiento del PTS de Ríos y Arroyos de la CAPV.

- En lo que respecta a inundabilidad, se da traslado del expediente a URA, para su valoración.

1d.- Adecuación al Plan Territorial Sectorial de Zonas Húmedas de la CAPV.

- Se informa favorablemente el expediente en lo que respecta a su adecuación al PTS de Zonas Húmedas de la CAPV, al contemplarse la balsa de riego de Yécora, categorizada dentro del Grupo III del citado PTS.

2.- INFRAESTRUCTURAS Y SERVICIOS

- No se pone objeción al expediente en lo relativo a infraestructuras y redes de servicios.

3.- EQUIPAMIENTOS Y ESPACIOS LIBRES

- Se informa favorablemente el expediente en lo relativo a equipamientos y espacios libres.

- Se remite el expediente a la Dirección de Patrimonio Cultural del Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura del Gobierno Vasco, para su valoración en la materia.

4.- ASENTAMIENTOS RESIDENCIALES Y DE ACTIVIDADES ECONÓMICAS

4a.- Cuantificación y modelo territorial residencial.

- La capacidad residencial planteada de 89 viviendas encaja en la capacidad residencial resultante de aplicar los criterios del Plan Territorial Parcial de Rioja Alavesa y de las DOT.

- Se informa favorablemente el expediente en materia de edificabilidades.

- Se remite la valoración del Plan en materia de vivienda protegida al informe de la Viceconsejería de Vivienda, a quien se ha remitido el expediente para su valoración.



4b.- Jarduera ekonomikoetara zuzendutako lurzorua antolamendua eta kuantifikazioa.

- Ekonomia jardueri dagokienez, aldeko irizpena eman zaio udalerrian proposatzen diren eredu eta kuantifikazioari.

- Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 77.5 artikuluan azaltzen da jarduera ekonomikoko sektore baten % 30 bete behar dutela eraikinek, gutxienez. Beraz, YE.05 eremuaren fitxak azaldu beharko du parametro hori.

- Gomendatzen da YE.05 eremuaren fitxan Arabako Errioxako Laguardiako LPParen lehenengo aldaketan aipatzen den honako irizpide hau azaltzea: upeltegi edo nekazaritza-pabiloi berriak ezartzeak ezingo du aldatu ez hiri-egitura eta ez hiriguneen irudia.

II- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen lehenengo xedapen gehigarriko 3. puntua Batzordeari buruzkoa da, eta horrek xedatutakoaren arabera, txosten honetan aipatzen diren baldintzak sartu eta gero, espedienteak behin betiko onespena lortu ahal izango du, Batzorde honen txosten berririk gabe.

II- Nekazaritza eta Abeltzaintzaren arloan:

Nekazaritza eta Abeltzaintzaren arloan, Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak 2016ko martxoaren 7an emandako txostena hartu behar da kontuan.

III- Abiazio zibilaren arloan:

Abiazio Zibilaren arloan, Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiak 2015eko urtarrilaren 9an emandako txostena hartu beharko da kontuan.

IV.- Uraren arloan:

URA-Uraren Euskal Agentziak aldeko irizpena eman du, 2016ko martxoaren 9ko txostenean eta martxoaren 16ko txosten osagarrian, honako erabaki lotesle hauek betetzeko baldintzapean:

4b.- Ordenación y cuantificación del Suelo de Actividades Económicas

- Se informa favorablemente el modelo y la cuantificación de suelo para actividades económicas propuesto para el municipio.

- La ficha del ámbito YE.05 deberá señalar la ocupación mínima del 30% señalado en el artículo 77.5 de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo, para un sector de actividades económicas.

- Se recomienda que la ficha del ámbito YE.05 indique específicamente el criterio señalado por la primera modificación del PTP de Laguardia (Rioja Alavesa), de que la implantación de bodegas o pabellones agrícolas en el ámbito no podrá suponer una alteración de la estructura urbana ni de la imagen del núcleo.

II- A los efectos de lo dispuesto en el punto 3 de la Disposición Adicional Primera de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo relativa a esta Comisión, una vez introducidas las condiciones contenidas en el presente informe el expediente podrá ser aprobado definitivamente sin necesidad de ser sometido nuevamente a informe de esta Comisión.

II- En materia de Agricultura y Ganadería:

En materia de Agricultura y Ganadería, es preciso tener en cuenta el informe emitido por la Dirección de Agricultura y Ganadería de 7 de marzo de 2016.

III- En materia de Aviación Civil:

En materia de Aviación Civil, es preciso tener en cuenta el informe emitido por la Dirección General de Aviación Civil de 9 de enero de 2015.

IV- En materia de Aguas:

La Agencia Vasca del Agua-URA, en su informe emitido el 9 de marzo de 2016 y su informe complementario de 16 de marzo, informa favorablemente de manera condicionada a que se dé



cumplimiento a las siguientes determinaciones de carácter vinculante:

1.- Garapen berrien antolamendu xehatuaren tresnek exekutatzeko beharrezko obrak eta/edo lizentziak baimentzeko baldintza gisa jaso beharko dute amaieran zehazten den hondakin-uren saneamendu eta arazketarako konponbide berria eraikita eta behar bezala funtzionatzen ibili beharko dela. Era berean, beharrezkoa izango da URaren Mediterraneoeko Arroen Bulegoan bideratu beharreko isurketarako baimena.

1.- Los instrumentos de ordenación pormenorizada de los nuevos desarrollos deben contemplar como condición para la obtención de la autorización de obras y/o licencias necesarias para su ejecución, que la nueva solución al saneamiento y depuración de las aguas residuales que finalmente se defina deberá estar construida y en correcto funcionamiento. Será necesaria a su vez, la preceptiva autorización de vertido a tramitar en la Oficina de Cuencas Mediterráneas de URA.

V. Expediente hau behin betiko onartzeko, eskumena duen organoari ondokoek egindako txostenak bidaltzea: Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza (I. eranskina), Etxebizitza Sailburuordetza (II. eranskina); Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza (III. eranskina); Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusia (IV. eranskina); eta, URA-Uraren Euskal Agentzia (V. eranskina). Ziurtagiri horiek erantsita doaz.”

V. Remitir al órgano competente para la aprobación definitiva del expediente los informes emitidos por la Dirección de Medio Natural y Planificación Ambiental (Anexo I); por la Viceconsejería de Vivienda (Anexo II); por la Dirección de Agricultura y Ganadería (Anexo III); por la Dirección General de Aviación Civil (Anexo IV) y por URA. Agencia Vasca del Agua (Anexo V); que se acompañan a la presente certificación.”

Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau egin eta sinatu dut, bilkuraren akta onetsi baino lehen. Vitoria-Gasteizen, 2016ko martxoaren 16an.

Y para que así conste, expido y firmo, con anterioridad a la aprobación del acta correspondiente a esta Sesión, en Vitoria-Gasteiz, a 16 de marzo de 2016.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAREN
IDAZKARIA

SECRETARIO DE LA COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL PAÍS VASCO



Izpta./Fdo.: Tomás Orallo Quiroga